




AZAROAK 6, LARUNBATA



“ITSASOKO ZABOR BILKETA” HERRITARREN ZIENTZIA-EKINTZA



Azaroaren 6an, larunbata, **familientzat** (5 urtetik gorako umeekin) antolatutako “**Itsasoko zabor bilketa**” izeneko herritarren zientzia-ekintza ekimenean parte hartzera animatu nahi zaitugu.

Aztertu programak* antolatutako jarduera hau Zientzia Astea 2021 programaren barruan dago.

*(Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Arloa).

Jarduera **Zierbenako La Arena hondartzan** gauzatuko da, **11:00etan**.

Familia parte-hartzaileek beraien kabuz joan beharko dute **topagunera**, hau da, **La Arena Turismo Bulegoan**, hondartzako parkingen ondoan.

Toki kopuru mugatua. **Izena eman behar da.** (Doan).

Izen-ematea aurrez aurre egin ahal izango da Barakaldoko kultur etxe eta zentro zibiko guztietan, 944789552/944789485 telefono zenbakietan edo kulturbulegoa@barakaldo.eus helbide elektronikokoan (Adierazi jarduera, izenak, abizenak, NAN zenbakiak eta telefonoa). Izen-emate ordenaren arabera esleituko dira tokiak.

Hizkuntza: Adingabeak: euskara / Helduak: elebiduna



Jardueraren garapena:

- 11:00etan: Izena eman duten familiei harrera egitea karpan
- AZTERTU programa laburbiltzea eta itsasoko hondakinei buruzko solasaldi txikia antolatzea
- 11:30ean: Familia-arteko ginkana hasiko da. Familiek zenbait proba bete beharko dituzte hondartzan, horretarako eskuratu zaien galdetegi baten bitartez (jolas bidezko ikaskuntza)
 - Hainbat hondakin biltzea
 - Espezieak marraztea
 - Uraren parametro bat edo gehiago neurtzea
 - Asmakizuna
- 13:00etan: Amaierako hausnarketa. Udal-erakundearen hondakinak uztea

